



lanbide

ESKUBIDEAK BALIATZEKO BETEBEHARRA
(DSBEa eskatzen denean bakarrik)

ERE-DBE-026

Berrik. 08
Indarrean sartu den eguna:
2025/01/29

Eskubideak baliatzeko betebeharraz informatzeko agiria:

Honen bidez, bai ni, bai nire bizikidetz-unitatea osatzen dutenak, jakinaren gainean gaude eskubidez izan ditzakegun pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatzeko baldintza bete behar dugula.

Hortaz, jakin badakit bizikidetz-unitateko edozein kideri egotz dakizkikeen arrazoiengatik ez eskatzeak, eskubideari uko egiteak edo, hala badagokio, bizikidetz-unitateko edozein kideri egotz dakizkikeen arrazoiengatik eskaera ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo azkentzea ekar dezakeela.

Hemen zerrendatutako laguntzak, prestazioak eta diru-laguntzak eskatzeko konpromisoa hartzen dut:

- **Langabezia-prestazioa** → SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatu behar da.
- **Langabezia-sorospena** → SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatu behar da → Sorospen-motak:
 - Kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortu zaien eta familia-erantzukizunak dituzten langileak.
 - Kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortu zaien eta familia-erantzukizunik ez duten 45 urtetik gorako langileak.
 - 52 urtetik gorako langileentzako langabezia-sorospena.
 - Itzulitako langile emigratzaileak.
 - Legezko langabezia geratu diren baina kotizaziopeko prestazioa eskuratzeko gutxieneko kotizazioaldia oraindik osatu ez duten langileak.
 - Espetxetik askatutako pertsonak.
 - Ezintasun iraunkor osoa, osoa kualifikatua, absolutua edo baliaezintasun handia duten langileak, hobekuntzagatiko berrikuspenaren ondoren gradua baliogabetzen zaienak edo ezintasun iraunkor partzialeko maila izatera igarotzen direnak.
 - Langabeziagatiko laguntza berezia.
- **Beste prestazio batzuk:**
 - GEA: gizarteratzeko errenta aktiboa → SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatu behar da.
 - BGDS: Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera → Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan eskatu behar da.
- **Kotizaziopeko pentsioak eta beste prestazio batzuk** → Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalan eskatu behar dira → Motak:
 - Erretiro-pentsioa.
 - Lanerako ezintasun iraunkorragatiko pentsioa: osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
 - Heriotza-pentsioa: alarguntza-pentsioa zurztasun-pentsioa, familiartekoen aldeko pentsioa.
 - Beste batzuk: familia laguntzak, ZBDA,...
- **Kotizazio gabeko pentsioak** → Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako foru-aldundietan eskatu behar dira → Pentsio motak:
 - Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa.
 - Kotizazio gabeko ezintasun-pentsioa.

Dokumentu hau sinatzen dut LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta, beronen bidez, konpromisoa hartzen dut nire bizikidetz-unitateko kideen eskubide ekonomikoak erreklamatzeko.

Data eta eskatzailearen sinadura.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Sin.: _____

Nire ardurapean aitortzen dut, DSBEari dagokionez, badakit funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo ez-egiteak prestazioa azkentzea dakarrela, eta ezin dela eskatu bi urteko epean, ebazpena irmoa den egunetik zenbatzen hasita, hargatik eragotzi gabe egon litekeen zehapen-erantzukizuna.